



Migel Mari Elosegi*

V.M. Elosegi

Uzturre, berde-berdea maiatzean.

Piztizaleon berriak: MAIATZA

Pagadiak kolore harrigarria hartuko du
hostoak berritzaeran.



V.M. Elosegi

Maiatza, ezin ederragoa

Pixkanaka zuhaitzak hostoz janzten joan dira. Pago eta haritzei gehixeago kosta zaie baina azkenean, guztiak berdetu zaizkigu. Zenbait egunez, pagadien berdetsuna sinesgaitza izan ohi da, eta oihan ilun hauen baitan kolore berde bizi-biziko argitasun zirrargarria egoten da. Hasiera batean zuhaitz-espezie bakoitzaren kolorea berezia izaten bada ere, egu-

nak pasa ahala, iluntzen joaten dira eta espezie desberdinak urrutira bereiztea zailago gertatuko zaigu. Loreak berriz, zein baino zein politago, zein baino zein usaintsuago ditugu, intsektuak erakarri eta ugaltzeko. Animaliei dagokienean, ugalketaren goreneko unean daudela eta, ez dute denbora galtzerik. Bestalde, zomorroak ugaritu eta azken migrazioak iristearekin batera, gure

Elhuyarreko kazetaria: -Zorionak Enara anderea!

-Eskarrik asko!

Elhuyarreko kazetaria: - Zorionak Buztangorri jauna!

-Mila esker! Baniak eh? gosetutako sei kume zeuzkeat bazkatzeko!

Elhuyarreko kazetaria: - Zorionak Zozo anderea, zer moduz familia?

-Ongi, bai, eskerrik asko! Lehenengo txitaldian bi kume atera nituen eta kozkortu dira iadanik. Orain berriz, beste lau dauzkat habian eta okerrrik ez bada, guztiak haziko ditut.

Eguraldiak laguntzen badigu gainera, hirugarren txitaldia ateratzen saiatu nahi genuke.

Eta axola ez bazaizu, txitoak hamazazpigarren aldiz bazkatzea noa, aio!

Elhuyarreko kazetaria: - Zorionak Bele jauna!

-Alde haize hartzera, alu arraioa!

(Gure kazetaria batzuetan astun samar jartzen da eta garai honetan hegazti gehienak estresatuta ditugunez, ulergarria da jarrera hau. Dena den, beleak beti izan dira zipotzak kazetariekin...)

M.M. Elo segi



Pagoaren berdetasuna... sinesgaitza.

udaberriko fauna osatua izanen dugula aipatu behar da.

Eta batzuk eguzkia hartzen?

Ez al dugu bada denbora galtzerik ez dagoela esan? Zertan ari dira orduan sugandila eta sugeak eguzkia hartzen? Lehenagotik erdizka ulertzen banuen ere, kotxea erosi nuenetik ezin hobe ulertzen dut hau. Izan ere, nire auskalo zenbatgarren eskuko kotxea ezin da hotz egiten duenean (maldan behera jaitsita ez bada) martxan jarri. Eguraldi hotza eta euritsuarekin berriz, maldan behera ere nekez. Antzeko zer edo zer gertatu behar zaie narrasti eta "odol hotzeko" animalia gehienei martxan jartzeko, eta horregatik, eguzkia atera ahala, luze-luze jartzen dira berotu nahiean. Askok gorputza zapaltzen dute, eguzkitan ahalik eta azalera handiena jarri nahiean. Behin odola epeldu zaielarik, ehi-

zan has daitezke. Sugandilak zomorro txikietan trebatu dira, eta sugeak berriz, sugandila, sagutxo, eta bestelako ornodun txikietan.

Intsektuak ugari

Arretaz begiratzen baldin badugu intsektuak toki guztietan daudela ohartuko gara: belarretan, orbelean, harripean zein airean. Guztien artean, tximeletak ezagunenarikoak ditugu. Kolore deigarritz apainduta eta mugimendu berezien bidez, ugalkideak erakartzen saiatzen dira eta parekatu ondoren, beldarren gustuko landareetan erruten dute. Osinetako tximeleta, esate baterako, Euskal Herriko arruntenarikoak da eta izenak dioen bezala, arrautzak osinetan jartzen ditu. Bertan jaitzen diren beldarrek erruz jaten dute, energia metatu, metamorfosia burutu, eta tximeleta bihurtu ahal izateko.

Arrautzak, txitoak, kumeak... a zer nolako lana!

Habia dantzan somatu orduko eta begirik oraindik ireki ez badute ere, zozokumeak ahoa guztiz zabaldu eta txioka hasi dira. Aitak zizare-pare bat zekartzen eta kumeen aho gorri-gorriak ikusita, hauek berehala bazkatu eta berriro ere ehizara atera da. Emea hiru minutu beranduago iritsi da matxinsalto batzuekin eta aurreko zizarea erdi irentsita zuten arren, txitoek beste behin ere ahoa ireki eta gehiago eskatu dute. Hauen goseak mugarik ez duela dirudi! Lepo jaten dute, hazi eta lehenbailehen habiatik alde egiteko.

Txori askok bigarren txitaldiari ekin diote eta emea bigarren txandako arrautzak berotzen ari den bitartean, aurreko kumaldiko txitoak, bazka eske dabilta aitaren atzetik. Hasieran honek hutsik egin gabe bazkatzen zituen, baina gero eta gutxiago arduratzen da txitoez. Hauek berriz, gero eta gehiago eskatu behar diote aitari eta une batetik aurrera, bazka

M.M. Elo segi




Egun eguzkitsuetan tximeletak nonahi agertuko dira.

M.M. Elo segi



Iparraldeko suge leuna ehizara atera da. Maiatzean sartu arte nekez topatuko dugu suge hau.



M.M. Elosegi



Ilundu orduko trikua martxan jarriko da. Ugaztun arrunta den arren errepedetan gehiegi hiltzen dira.

eskatzea euren kabuz lortzea baina nekosoagoa bihurtzen zaienean, bazka bila hasi beharko dute. Horixe zen hain zuzen ere gurasoek nahi zutena. Txitoak euren gisa molda zitezen, alegia.

Txitoen biziraupena

Atera ditzagun kontuak. Gure korrespontsalak elkarrizketatu duen zozoak bi kume atera zituen aurrena, lau bigarren txitaldian eta hiru gehiago hirugarrenean. Beraz, bi zozo genituen lekuan (bederatzi gazteak gehituta) orain 11 ditugunez, populazioa hazten ari dela ondoriozta genezake, ezta? Ez bada! Urtea joan urtea etorri txori gehienek txito asko ateratzen dituzte baina populazioek ez dute gorabehera izugarririk izaten. Nola ulertu bada hau? Animalia batzuk hainbeste kume egitearen arrazoa, espeziearen hilkortasun handiarekin orekatzen da. Honela, gure zozoak habitatik ateratako txito gehienak, harrapariak ehizatuko dituzte, goseak hilko dira, edo auskalo

nola akabatuko duten, baina oso gutxi lortuko dute heldutasunera iristea. Adituen ustez, txori-espezie gehienetan jarritako arrautzen % 10 edo gutxiago iritsiko da heldutasunera.

Basoilarraren araldia

Egunsenti gorria Pirinioetako oihan ilun batean. Lehen eguzki-izpiekin batera urrunean soinu harrigarriak entzun dira. Pinu baten puntan, basoilarrak dotorea amodiozko kantuak abesten ari da. Lurreratuta, hegoak zintzilikatu, buztana erabat zabaldu, lepoko lumak harrotu, eta gora begira jarrita, oilar erraldoiak abesten jarraitu du. Mamu baten antzera, eme bat ezkutuka hurbildu zaiola eta ohartu denean, arra itsu-itsu hasi zaiola abesten. Beranduxeago, arrak emea estaltzea lortu du eta bigarren hau hasia da iada, arrautzak erruteko ezkutuko zokoren baten bila.

Trikua bide erdian

Trikua, kirikinoa, edo sagarroia, nahi duzuen bezala, maiz ikusten dudana animalia da, baina zoritxarrez, gehienetan errepedean zapalduta aurkitzen dut. Arantzez jantzitako ugaztun maitagarri honek,

eboluzioan zehar, defentsa-sistema ona lortu zuen oso. Izan ere, gutxi dira trikua bildu eta arantzeko pilota bihurtzen denean, menpera dezaketen harrapariak. Errepidetan ordea, milaka urtez baliagarri izan zaion sistema berbera erabiltzen jarraitzen du. Horregatik, errepedea gurutzatzen hasi eta zer edo zerk izutzen denean, kiribildu eta bertan gelditzen da. Ondorioa guztiok ezagutzen dugu: ibilgailuak jotako triku gizarajoa taloa bezain zapala. Noiz ikasiko ote dugu animalientzako pasabideak egiten?

Basurdea kumeekin

Sastrakadian behera, zerrama ederra dator bere 5 kumeekin. Ama ilun-iluna bada ere, kumeak arrasto horiak dituzte eta ederki kamuflatzen dira basoan. Iadanik amari jarraitzen ikasi dute eta edoskitzaroa amaitu ez duten arren, muturra lurpean sartu eta euren kabuz, bazka bilatzen ikasten ari dira.



M.M. Elosegi

Basurde-kumeak, pixkanaka, bazka bilatzen ikasten ari dira. Dena den, hauek ez dute oraindik amaren erreapea utzi.

Ehiza-presio handia pairatzen duten arren, ugaztun bizkor hauen populazioak gora egin du azken urteotan gure lurraldean eta beraz, ez da harritzekoa garai honetan basurde-koadrilaren batekin topo egitea.



* Biologoak

